

## 2. ZATIA. ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

### 2 MAILA

Gaia: ETXEBIZITZEN ARAZOA. GAZTEAK ETA ETXEBIZITZAK.



1. argazkia

### Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan?
- Bi argazkien artean badago loturarik? Zertan?
- Zer etorri zaizu burura lehenengo argazkia ikustean?
- Antzeko etxerik ikusi duzu inoiz?- eta bigarrena ikustean, zer etorri zaizu burura?
- Zein argazki duzu gogokoago? - Zergatik?
- Non bizi izango zinateke gusturago?
- Etxebizitzak arazo dira, gaur egun?- Gazteentzat?

## 2. ZATIA. ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

### 2 MAILA

Gaia: AISIALDIA, KALEKO EDANA, GAZTEEN AISIALDIA.



2. argazkia

### Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan? Zertan ari dira? Non daude?
- Nolakoak dira argazkiko pertsonak?
- Ba al da bi argazkien artean desberdintasunik?
- Zer pentsatuko dute argazkietako pertsonak?
- Zer etorri zaizu burura argazkiak ikusi dituzunean?

## 2. ZATIA. ARGAZKIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

### 2 MAILA

Gaia: ETORKINAK EUROPAN



3. argazkia

### Elkarrizketa bideratzeko galderak:

- Zer ikusten duzu argazkietan? Zertan ari dira? Non daude?
- Zein da argazkien arteko lotura?
- Nolako dira argazkietako pertsonak?
- Nolako harremana izango dute elkarren artean?
- Nolako bizimodua izango dute?
- Zer etorri zaizu burura argazkiak ikustean?

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2 MAILA

### Ahozko azterketa

#### **Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak**

- 1. ZATIA. Aztertzailen galderak (2/3 minutu)
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (3/4 minutu)
- **3. ZATIA. Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu.

#### **Orain prestatu behar duzuna:**

- **Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

#### **Prestatzeko denbora**

**15 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzailerek deitu arte.

#### **Amaieran orria eman aztertzailerei**

#### **Gaia: Familia eredu berriak**

### **Familia eredu berriak**

#### **Egitekoa**

Azken urteetan familia ereduak aldatu egin da. Bikote motak ere aldatu egin dira, baita legeak ere (sexu berekoen ezkontzak, bakarrik bizi direnak...). Aldaketa horiei buruz hitz egingo duzu eta zure iritzia eman. **Familia eredu berriei buruz** hitz egingo duzu epaimahaikoen aurrean, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago**

Azaldu zein diren azken urteetako aldaketarik handienak familia ereduetan (sexu berekoen ezkontzak, bakarrik bizi direnak, haur atzerritarrak etxean hartzea ...). Legeak ekarri dituen aldaketak. Gizartearen iritzia zein den. Aldaketa horien alde edo kontra egoteko arrazoiak. Konparatu beste leku batzuetan bizi den egoerarekin edo beste garai batzuetan zegoenarekin.

Gaiarekin lotutako albiste hauek argitaratu dira egunkari batean:

**"Hamar urtean %77 handitu da bakarrik bizi direnen kopurua".**  
**"Belgikako Senatuak sexu bereko bikoteek haurrak adoptatzea onartu du".**

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

#### **2. zatirako edozein argazki erakutsi 4. argazkia izan ezik**

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2 MAILA**

## Ahozko azterketa

### **Epaimahaikoen aurrean gin beharreko ariketak**

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak (2/3 minutu)
- 2. ZATIA. Argazkiari buruzko elkarrizketa (3/4 minutu)
- **3. ZATIA. Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

Guztira 10 bat minutu.

### **Orain prestatu behar duzuna:**

- **Gaiaren** garapena (egitekoa) (3/4 minutu)

### **Prestatzeko denbora**

**15 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Prestatzen amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

### **Amaieran orria eman aztertzaileei**

**Gaia: Zahartzaroa gaur egun**

### **Zahartzaroa gaur egun**

#### **Egitekoa**

Gaur egun zahartzaroa gero eta luzeagoa da. Nola bizi dira gaurko aitona-amonak? Zer aldatu da haien bizimoduan? Gau egungo hirugarren adinekoei buruz eta **zahartzaroz** duzun iritzia azalduko diezu aztertzaileei, 3/4 minututan.

#### **Zehatzago**

Azaldu gaurko zaharren bizimodua, zertan aldatu den eta konparatu lehengo bizimoduarekin, zein diren abantailak edo desabantailak. Zer aldatu den, zer hobetu daitekeen.

Esan, zure ustez, non bizi diren hobeto aitona-amonak: bakarrik, zahar-etxeetan, seme-alaben etxean....

Gaiarekin lotutako albiste hau argitaratu da egunkari batean:

**"Gipuzkoako zahar etxeetan leku berezia egingo diete aitona-amonei udako hilabeteetan."**

Gogoratu 3/4 minutuz hitz egin beharko duzula.

**2. zatirako edozein argazki erakutsi 5. argazkia izan ezik**

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa deialdia: **2006ko ekaina**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**